

# Gazteak eta harreman afektibo-sexualak Nafarroa 2025

Balioak, jardunbideak eta gaurkotasuna Nafarroako gazteen harreman afektibo-sexualetan

# Gazteak eta harreman afektibo-sexualak Nafarroa 2025

Balioak, jardunbideak eta gaurkotasuna  
Nafarroako gazteen harreman  
afektibo-sexualetan

Gobierno  
de Navarra



Nafarroako  
Gobernua



AGENDA  
2030

Instituto  
Navarro de  
la Juventud



Nafarroako  
Gazteriaren  
Institutua

Harreman afektibo-sexualak funtsezkoak dira gazteen garapenean. Etengabe aldatzen ari den gizarte honetan, non balioak, arauak eta interakzio kanalak erritmo bizian bilakatzen diren, ezinbestekoa da aztertzea nola eraikitzen, ulertzen eta esperimintatzen dituzten gazteek beren harreman afektiboak eta sexualak. Nafarroako Gazteriaren Institutuak gazteen arteko harreman afektibo-sexualei buruzko azterlan hau garatu du, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren, Nafarroako Osasun Publikoko Institutuaren eta Hezkuntza Departamentuaren laguntzarekin. Oso ekarpen baliagarria da, gazteek gai horri buruz dituzten dinamikak, pertzepzioak eta erronkak ulertzeko. Azterlan honek gai horiek eta beste batzuk argitu nahi ditu, eta, aldi berean, gomendio batzuk eman, politika publiko eraginkorrak eta egungo errealitatearekin bat datozenak diseinatzeko.

Metodologia zorrotz baten bidez, txostenak Nafarroako gazteen ahotsak eta esperientziak jasotzen ditu, testuinguru, orientazio eta identitate anitz hartzen dituela barnean. Azterlanak hainbat alderditan jartzen du arreta, adibidez, komunikazioan, emozioen kudeaketan, elkarrenganako errespetuan eta kanpo eraginetan (sare sozialak, adibidez), eta gazteen harremanei lotutako patrioiak, indarguneak eta hobetu beharreko arloak agertzen ditu. Era berean, nabarmentzen du oso garrantzitsua dela genero berdintasuna, indarkeriaren prebentzioa eta adostasuna lantzea, besteak beste, funtsezko oinarriak baitira harreman osasungarri eta arduratsuak izateko.

Lan honek, egungo praktikak ulertzen laguntzeaz gain, hausnarketa kolektiboa bultzatu nahi du, harreman esparru ekitatiboagoa, errespetuzkoagoa eta aberasgarriagoa lortzen laguntzeko eta gazte ahaldunduak eta beren aukera afektibo-sexualetan kontzienteak direnak sortzeko.

© Nafarroako Gobernua (Nafarroako Gazteriaren Institutua)

Ikerlana egin duen enpresa: Markemos, S.L.

Lehenengo argitalpena: 2025ko urtarrila

Diseinua eta maketazioa: Ana García Senosiáin

Inprenta: Rodona

LG NA 781-2025

Argitalpen honen edukiaren erreproduzizio partzial edo erabatekoa baimenduta dago, iturriaren aipua eginez.


**Txema Burgaleta Encina**  
Zuzendari kudeatzailea  
Nafarroako Gazteriaren Institutua

# Gazteak eta harreman afektibo-sexualak

## Nafarroa 2025

### Emaitzen txostena

<b>1. Helburuak eta metodologia</b>	<b>7</b>
<b>2. Elkarrizketatutako nafar gazteen profila</b>	<b>11</b>
<b>3. Hezkuntza afektibo-sexuala</b>	<b>17</b>
3.1. Jasotako hezkuntza afektibo-sexuala	17
3.2. Balorazioa	19
3.3. Iturri kontsultatuak eta gogokoenak	22
3.4. Nafarroako gazteek hezkuntza afektibo-sexualaren arloan dituzten interesak	24
3.5. Anomiari eta fisiologiari buruzko ezagutzak	26
<b>4. Pubertaroa</b>	<b>27</b>
<b>5. Arlo afektibo-sexualeko esperientzia</b>	<b>31</b>
<b>6. Sexu transmisiozko infekzioak prebenitzeko metodoak eta metodo antikonzeptiboak</b>	<b>37</b>
6.1. Sexualitate arduratsuko jarrerak	37
6.2. Sexu transmisiozko infekzioei eta metodo antikonzeptiboiei buruzko informazioa eta ezagutza	41
6.3. Metodo antikonzeptiboaren erabilera	44
6.4. Sexu transmisiozko infekzioak prebenitzeko metodoen erabilera	46
6.5. Sexu transmisiozko gaixotasunen intzidentzia	49
<b>7. Abusu eta indarkeria sexuala</b>	<b>51</b>
<b>8. Adostasunaren kultura</b>	<b>61</b>
<b>9. Pornografia eta harreman afektibo-sexualak</b>	<b>67</b>
<b>10. Gazteen ahotsa</b>	<b>79</b>
<b>Bukaerako gogoetak</b>	<b>81</b>



# 1

## Helburuak eta metodologia

Nafarroako Gazteriaren Institutuak, bere ikerketa monografikoen esparruan, azterlan xehe bat gauzatu du gazteei eta haien harreman afektibo-sexualei buruz.

**Harreman afektibo-sexualak funtsezkoak dira gazteen garapenean.** Hala ere, gaur egun askotariko erronkak identifikatzen dira eremu horretan, esaterako, sexu hezkuntza integralik ez izatea, pornografiako indarkeriak hezkuntza afektibo-sexualaren eraikuntzan duen eragina eta adostasunean oinarritutako kultura nahikorik ez izatea.

Azterlan honen bidez, gazteek harreman afektibo-sexualen esparruan dituzten esperientziak aztertu dira, ezagutza sortzeko, **zeina oinarri gisa erabiltzen ahalko baita hezkuntzako esku-hartzeak ezartzeko, bai eta errespetuan, berdintasunean eta adostasunean oinarritutako harre-**

**man afektibo-sexual osasungarriak sustatzera bideratutako politika publikoak diseinatzeko ere.**

**Beraz, 2024ko Inkesta Monografikoaren helburu orokorra gazteek harreman afektibo-sexualen inguruan dituzten bizipenak aztertzea izan da, erreferentziatzat hartuta Nafarroako Gazteriaren Institutuko Zuzendaritzak Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin, Hezkuntza Departamentuarekin eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuarekin lankidetzan onartutako esparru dokumentuan zehaztutako hiru ildo estrategikoak:**

- + **Hezkuntza afektibo-sexuala.**
- + **Pornografiako indarkeriak hezkuntza afektibo-sexualean duen inpaktua.**
- + **Adostasunaren kulturaren sustapena.**

## Helburu espezifikoak

Hona hemen ikerketa honen helburuari erantzuteko landu diren helburu espezifikoak:

- † **Hezkuntza afektibo-sexuala:** bizi osoan jasotako hezkuntzaren balorazioa, kontsultatutako iturriak eta iturri gustukoenak. Era berean, hezkuntza afektibo-sexualaren arloan interesatzen zaizkien gaiak aztertzen dira.
- † **Pubertaroa:** Nafarroako gazteek pubertaroan gertatzen diren aldaketa fisiko eta emozionaleri aurre egiteko duten gaitasunaren balorazioa.
- † **Arlo afektibo-sexualeko esperientzia:** zehaztea zenbat urteekin hasten diren beren lehen esperientzia sexualak izaten, eta beren lehen sexu harremanaren testuingurua eta balorazioa azaltzea. Sexualitatea bizitzeko moduari buruz duten gogobetetze maila.
- † **Sexu transmisiozko infekzioak prebenitzeko metodoak eta metodo anti-kontzeptiboak:** sexualitate arduratsuari buruz dituzten jarrerak ikertzea. Sexu transmisiozko infekzioak prebenitzeko metodoen eta metodo anti-kontzeptiboen erabilera, eta halakoak ez erabiltzeko arrazoiak. Gazteen artean sexu transmisiozko infekzioek duten intzidentzia ere aztertzen da.
- † **Abusu eta indarkeria sexuala:** Nafarroako gazteen artean abusu edo indarkeria sexistako kasuek duten prebalentzia ezagutzea.
- † **Adostasunaren kultura:** gazteen harreman afektibo-sexualetan adostasuna ulertu eta aplikatzen den aztertzea.
- † **Pornografia eta harreman afektibo-sexualak:** aztertzea gazteak zer neurritan dauden pornografiako sexu indarkeriaren esposiziopean, eta ikus-tea horrek zer eragin duen haien jarrera, balio eta portae-retan, harreman afektibo-sexualen esparruan.

## Planteamendu metodologikoa

### Ikertzeko teknika

Telefono bidezko elkarrizketak, CATI (Computer Aided Telephone Interview) sistemarekin, galdera ireki eta itxietan oinarritzen den eta zenbait balorazio eskala dituen galdetegi bat erabiliz.

### Xede taldea

Azterlanaren xede den unibertsoa Nafarroako Foru Komunitatean bizi diren 16 eta 30 urte bitarteko gazteak dira.

**Estatistikaren lagina eta errorea 602 elkarrizketa** egin zaizkie gazte nafarrei, eta horrek aukera emanen digu kolektibo osoaren gaineko estimazioak egiteko,

**e = ± %4,0** (errore tartearekin (% 95,5eko konfiantza maila lortzeko).

### Laginaren banaketa

Lagina lortzeko, ausazko laginketa estratifikatu bat erabili dugu, honako aldagai hauen arabera: elkarrizketatua bizi den eremua, haren adin taldea eta sexua. Estratu bakoitzari emandako esleipena ez-proporzionala motakoa izan zen, haietako bakoitzeko gutxiengo adierazgarritasun estatistikoa lortzeko. Laginketa egiteko abiapuntua Nafarroako gazteei buruz Nastat institutuak ateratako datu-base bat izan zen.

Nafarroako gazteak, eremuaren, sexuaren eta adinaren arabera\*:

	16-20 urte		21-25 urte		26-30 urte		GUZTIRA
	Gizona	Emakumea	Gizona	Emakumea	Gizona	Emakumea	
<b>Iparralde</b>	1.852	1.723	1.700	1.531	1.663	1.451	<b>9.920</b>
<b>Iruña</b>	11.003	10.551	10.396	10.258	10.200	9.894	<b>62.302</b>
<b>Erdialdea</b>	1.777	1.620	1.844	1.687	1.697	1.587	<b>10.212</b>
<b>Hegoaldea / Erribera</b>	4.019	3.661	4.136	3.915	4.032	3.805	<b>23.568</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>18.651</b>	<b>17.555</b>	<b>18.076</b>	<b>17.391</b>	<b>17.592</b>	<b>16.737</b>	<b>106.002</b>

\*Egileak egin. Iturria: EIN, Errolda Jarraituaren Estatistika, 2022/01/01.



**Laginketaren xehetasunak:**

Ondoren, nafar gazteei esleipen ez-proportzionala irizpidearekin egindako laginketa xehatzen da.

	16-20 urte		21-25 urte		26-30 urte		GUZTIRA
	Gizona	Emakumea	Gizona	Emakumea	Gizona	Emakumea	
<b>Iparraldea</b>	21	18	25	34	37	30	<b>165</b>
<b>Iruña</b>	21	18	28	31	31	25	<b>154</b>
<b>Erdialdea</b>	12	21	24	26	30	37	<b>150</b>
<b>Hegoaldea / Erribera</b>	16	14	25	23	25	30	<b>133</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>70</b>	<b>71</b>	<b>102</b>	<b>114</b>	<b>123</b>	<b>122</b>	<b>602</b>

**Laginketaren xehetasun haztatua:**

Emaitzak analizatzeko orduan, erabilitako estratifikazio aldagaien desbiderapenak zuzendu dira. Horretarako, datuak haztatu dira, gazteen benetako proportzionaltasuna lortzeko EINen datuen arabera (Errolda Jarraituaren Estadistika, 2022/01/01). Hona hemen haztapenaren emaitza:

	16-20 urte		21-25 urte		26-30 urte		GUZTIRA
	Gizona	Emakumea	Gizona	Emakumea	Gizona	Emakumea	
<b>Iparraldea</b>	11	10	10	9	9	8	<b>56</b>
<b>Iruña</b>	62	60	59	58	58	56	<b>354</b>
<b>Erdialdea</b>	10	9	10	10	10	9	<b>58</b>
<b>Hegoaldea / Erribera</b>	23	21	23	22	23	22	<b>134</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>106</b>	<b>100</b>	<b>103</b>	<b>99</b>	<b>100</b>	<b>95</b>	<b>602</b>

**Landa-lana egiteko datak:**

Landa lana 2024ko urriaren 14tik abenduaren 12ra bitartean egin zen.

# 2


## Elkarrizketatutako nafar gazteen profila

Ondoren, gazteen harreman afektibo-sexualei buruzko azterlan monografiakoan parte hartu duten gazteen profilen ezaugarriak azaltzen dira:

- † **Inkestatuen % 51,2 gizonak dira, eta % 48,8 emakumeak.** Part-hartzaileen batez besteko adina 23 urtekoa da, honela banatuta: % 34,2k 16 eta 20 urte artean ditu; % 33,5ek, 21 eta 25 urte artean, eta % 32,4k, berriz, 26 eta 30 urte artean.
- † **Okupazioari dagokionez,** % 44,2 lan merkatuan erabat sartuta dago, eta % 41,1ek ikasketetan igarotzen du bere denbora. Gainera, % 7,8k ikasketak eta lana uztartzen ditu, eta gainerako % 7a lan-gabezia dago edo beste jarduera batzuetan aritzen da.
- † **Jaiolekuari dagokionez,** gehienak (% 85,4) Foru Komunitatean jaioak dira, eta % 4,1 Espainiako beste eskualde batzuetatik etorria da. Inkestatuen % 10,5 atzerrian jaio zen, eta gehienak Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetatik etorriak dira (% 9,1).
- † **Erlijioaren arloan,** inkestatuen % 22k mezetara joaten den katolikotzat jotzen du bere burua, eta % 36,1k praktikatzan ez duen katolikoa dela esan du; beraz, guztira % 58,1ek adierazi du katolikoa dela. Bestalde, % 6,2 beste erlijio batekoa da (musulmana, judua eta protestantea, besteak beste), eta % 35,7k agnostikoa edo atea dela edo fede kontuetan interesik ez duela adierazi du.
- † **Hezkuntza-mailari dagokionez,** inkestatutako gazteen % 29k unibertsitate ikasketak bukatu ditu, eta horietatik % 12,7k masterra, graduondokoa edo goi mailako beste prestakuntza mota bat ere egin du. Bestalde, % 15,3k goi mailako lanbide heziketa bukatu du, % 49k bigarren hezkuntzako bigarren etapa egin du eta % 7k, berriz, bigarren hezkuntzako lehen zikloa egin du edo hortik beherako ikasketaren bat du.
- † **Azkenik, espektro politikoari dagokionez,** % 15,4k adierazi du ez duela jarrera zehatzik, eta % 5,6k ez dio galderari erantzun. Posizionatu direnen artean, % 29 ezkerrekin identifikatzen dira, % 34,1 zentroarekin eta % 8,5 eskuinarekin. Ezker muturreko jarrerak % 7 dira, eta eskuin muturrekoak, berriz, % 0,4 baino ez.

**Sexua**


Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa



**Adina**


Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa

Batez: 23 urte



**Gazteen banaketa eremuen arabera**

Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa




**Jaioterria**

*Non jaio zara?*

Non jaio zara?

Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa





**Bukatutako gehieneko ikasketa maila**

*Zein da orain arte bukatu duzun ikasketa maila altuena?*

Iradokitako erantzuna

Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa







**Gaur egungo okupazioa**

*Gaur egun, zein egoeratan zaude?*

Erantzun sinplea, iradokitakoa

Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa





**Erligioaren alderdia**

*Nola definitzen duzu zeure burua erlijioari dagokionez?*

Erantzun sinplea, iradokitakoa

Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa





■ Katolikoa (praktikatzaila eta ez-praktikatzaila)  
 ■ Beste erlijio baten sinesteduna / Agnostikoa /  
 ■ Interesik gabea / Atea

**Alderdi politikoa**

*Politikan, "ezkerra" eta "eskuina" esamoldeak erabili ohi dira. Zein lekutan jarriko zinateke, 1etik 10era bitarteko eskala batean, 1ek esan nahi badu "ezker muturra" eta 10ek, berriz, "eskuin muturra"?*

Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa



# 3 Hezkuntza afektibo-sexuala

### 3.1. Jasotako hezkuntza afektibo-sexuala.

Kontsultatutako nafar gazteen % 92,3k adierazi du nolabaiteko hezkuntza afektibo-sexuala edo sexualitatearekin lotutako hezkuntza jaso duela bere bizitzan, hezkuntzaren esparruan edo eremu pertsonalean. Nolanahi ere, % 7,7k adierazi du ez duela gai horrekin lotutako inolako hezkuntzarik jaso eta, ehuneko txikia izan arren, esanguratsua da.

Inkestatutako gazteen % 85,6k adierazi duenez, hezkuntza ingurunea da halako prestakuntza jasotzeko bide nagusia. Horren atzetik, baina intzidentzia txikiagoarekin, familia aipatu du % 21,7k. Gainera, % 9,3k adierazi du hezkuntza sistema formaletik kanpoko tailerretan edo ikastaroetan parte hartu duela, eta % 4,4k, berriz, osasun arloko profesionalen zuzeneko prestakuntza jaso duela.

**Datuak ikusita, esaten ahal da hezkuntza sisteman sexualitateari**



buruzko hezkuntza pixkanaka sartu dela denboran zehar. Inkestatuen artean, 26 urtetik gorakoen % 76,5ek adierazi du prestakuntza hori esparru arautuan jaso duela. Ehuneko hori % 84,5era igotzen da 21 eta 25 urte artean dituztenen taldean, eta % 95,3ra 20 urtetik beherakoen artean. Alabaina, prestakuntza jasotzeko gainerako bideak, esaterako, familia eta kanpoko tailerrak, ia konstante mantendu dira belaunaldi batzuetan eta besteetan. Horrek agerian jartzen du 26 urtetik gorako pertsonak ez dutela hain eskuragarri bide instituzionalen bidezko hezkuntza.

**Generoari dagokionez, aipagarria da gizonen, batez beste, emakumeek baino zertxobait maizago jaso dutela hezkuntza afektibo-sexuala.** Hain zuzen ere, gizonen % 5,3k soilik adierazi du ez duela prestakuntzarik jaso esparru horretan; emakumeen artean, berriz, % 10,3k esan du hori.

**Jasotako hezkuntza afektibo-sexuala**

*Hausnartu zure bizitzan eta hezkuntzan izandako ibilbideari buruz. Jaso al duzu ibilbide horretan zehar sexualitatearekin eta/edo hezkuntza afektibo-sexualarekin lotutako heziketak?*

Iradokitako erantzuna, anitza  
Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa



**3.2. Ikastetxeetan jasotako hezkuntza afektibo-sexualaren balorazioa.**


**Ikastetxeetan prestakuntza afektibo-sexuala jaso duten nafar gazteen % 85,6k 5,8ko batez besteko puntuazioa eman diote prestakuntza horri, otik 10era bitarteko eskalan.** Argi eta garbi, prestakuntza horri buruzko pertzepzioa banatuta dago: % 50,5ek 7tik beherako nota eman dio, eta horrek hari buruzko ikuspegi kritikoa goa jartzen du agerian. Aldiz, % 49,5ek gogobetetze handiagoa adierazi du, 7 puntutik gorako kalifikazioak eman baititu.

**Generoaren arabera desberdintasunei dagokienez, gizonak gogobetetze handiagoa adierazi dute jasotako prestakuntzari buruz; hain zuzen, 6,0 puntu esleitu dizkiote, emakumeek emandako 5,5aren aldean.** Era berean, alde handiak daude adinaren arabera: 20 urtetik beherakoek gogobetetze maila handiagoa adierazten dute, 6,5eko batez besteko balorazioa eman baitute; aldiz, 26 urtetik gorakoek emandakoa 5,0ra jais ten da.

**Ikastetxeetan jasotako prestakuntza afektibo-sexualaren balorazioa**

Baloratu Otik 10era ikastetxean jasotako heziketa sexuala (0 = oso gaizki; 10 = oso ongi):

Oinarria: sexu hezkuntza jaso dute beren ikastetxean (n = 545)



**Gazteek ikastetxeetan jasotako prestakuntza afektibo-sexualaren balorazioarekin jarraituz, hobetzeko tartea dagoela ikusten ahal da:**

- † **Jaso duten prestakuntza kanti-tateari dagokionez, iritziak bana-tuta daude:** % 47,5ek nahikotzat jotzen du, eta % 52,5ek "eskasa" dela uste du.
- † **Edukiei buruz dituzten iritzie-tan aldea handiagoa da:** gehien-goarentzat (% 56,8) osatugabea da, eta gainerako % 43,2ak osatua dela uste du.

Aintzat hartuta adina, sexua eta erlijio sinesmena, alde nabarmenak daude. Emakumeek, gazte zaharrenek (26-30 urte) eta erlijio loturarik ez dutenek gehiago ikusten eta baloratzen dute jasotako hezkuntza afektibo-sexuala eskasa eta osatugabea dela. Datuak hauek dira:



- † **Adinari dagokionez:** hezkun-tza eskasa izatearen pertzepzioa handiagoa da 26-30 urteko gaz-teen artean (% 58), eta txikiagoa 21-25 urtekoen artean (% 44,8). Zenbat eta zaharragoak izan, orduan eta gehiagok uste dute eskasa dela, eta are agerikoagoa da 26-30 urteko taldean (% 64,4), segur aski, prestakuntzan dau-den gabeziez gehiago jabetzen direlako.
- † **Sinesmen erlijiosoen arabera:** egia da lagin honetan kristauak ez diren beste erlijio batzuetako sinestunen kopurua ez dela adie-razgarria, baina aipagarria da beste taldeak bezain kritikoak ez direla (% 28,5ek uste du pres-takuntza eskasa dela, eta % 31,9k uste du osatugabea dela), eta ez direla hain zorrotzak. Horien aldean, agnostikoak eta ateoak kritikoagoak dira (% 60,1k uste du eskasa dela, eta % 64,8k osatugabea), eta horrek agerian jar-tzen du espektatiba handiagoak edo sistema tradizionalakiko pertzepzio kritikoagoa dituztela. Azkenik, katolikoak tarteko po-sizio batean daude, % 50,1entzat eskasa baita, eta % 54,2rentzat osatugabea.
- † **Generoari dagokionez:** emaku-meeek neurri handiagoan diote eskasa (% 58,6) eta osatugabea (% 61,5) dela, gizonen aldean (% 47 eta % 52,6). Horrek agerian jartzen du, beharbada, emaku-meeek halako prestakuntzekiko espektatiba handiagoa dutela, eta generoaren arabera bereizi-tako ikuspegiak behar dituztela sexu hezkuntzako programetan.

**Ikastetxeetan jasotako prestakuntza afektibo-sexualaren kantitatearen eta edukiaren balorazioa**

*Jasotako heziketa sexuala, zure ustez...*

Iradokitako erantzuna, sinplea

Oinarria: sexu hezkuntza jaso dute beren ikastetxean (n = 545).



### 3.3. Iturri kontsultatuak eta gogokoan.

Nafarroako gazteek sexualitateari eta harreman afektibo-sexualei buruz ikasteko erabiltzen dituzten informazio iturriak aztertzean eta haien iturri idealekin alderatzean, ideia nagusi hauek sortu dira:

- † **Lagunak informazio iturri nagusi gisa:** lagunak dira gehien aipatutako informazio iturria (% 55,8), eta ondoren familia (% 41,2) eta Internet (% 34,5) aipatzen dituzte. Datuok agerian jartzen dute sare informalekiko mendekotasun handia dagoela hezkuntza afektibo-sexualari buruzko ezagutzak eskuratzeko orduan.
- † **Iturri formalen garrantzi mugatua:** espezializatutako tailerrek (% 15,1), irakasleek (% 15,1) eta osasun arloko profesionalak (% 13,3) ez dute garrantzi handirik informazio iturri gisa.
- † **Familiaren rola indartzeko interesa:** gazteen % 34,3k adierazi du familiaren eskutik informazio gehiago jasotzeko interesa duela. Horrek agerian jartzen du beharrezkoa dela familia guneei prestakuntzako baliabideak ematea, etxean gai horiek errazago jorratzeko.
- † **Tailer eta ikastaro espezializatuak, aukera gustukoena:** gazteen % 25,2k adierazi du tailer eta ikastaro espezializatuetan parte hartzeko interesa duela. Era berean, irakasleen eta osasun arloko profesionalen eskutik informazioa jasotzeko interesa agertu dute, eta hor iturri instituzional eta profesionalak indartzeko aukera bat ikusten ahal da.
- † **Iturri informaleen balio txikiagoa:** inkestaturen arabera, lagunak, Internetek eta eduki pornografikoak balio txikiagoa dute informazio iturri gisa. Haien garrantzia txikiagoa litzateke iturri fidagarriagoak eta hezigarriagoak indartuko balira.
- † **Interes latentea hezkuntza afektibo-sexualean:** ehuneko txiki batek soilik (% 4,1) adierazi du ez duela kanpoko iturririk erabili, eta % 5,0k esan du ez dituela behar; horrek agerian jartzen du halako gaiak jorratzeko interes potentziala dagoela.


#### Gainera, adinari dagokionez, hau hartu behar da kontuan:

- † **Gazteek (16-20 urte)** familia eta lagunak lehenesten dituzte, baina erakundeen laguntza handiagoa eskatzen dute (tailerrak eta irakasleak). Haien erabili dute gutxien Internet halako gaietarako informazio iturri gisa, orain arte.
- † **Heldu gazteek (21-25 urte)** profesional espezializatuen parte-hartze handiagoa eskatzen dute, eta horrek erakusten du informazio teknikoagoa eta profesionalagoa behar dutela.
- † **Zaharrenek (26-30 urte)** interes txikiagoa agertu dute profesional espezializatuen bidezko prestakuntzan, eta halako gaietan duten interesa bide informalagoetara eramaten dute, esaterako, familiara eta lagunetara, arreta berezia jarrita irakasleetan, beste bide teknikoago batzuen kaltetan.

### Sexualitateari eta harreman afektibo-sexualei buruz informatzeko erabili diren eta izan nahi diren informazio iturriak

Jarraian sexualitateari eta harreman afektibo-sexualei buruzko informazio iturriak aipatzen dira. Zeintzuk erabili dituzu inoiz? Zer iturriren bidez gustatu izanen zitzazukeen informazioa jasotzea?

Iradokitako erantzuna, anitza | Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa



FUENTES	16-20 urte		21-25 urte		26-30 urte	
	Erabiliak	Nahi direnak	Erabiliak	Nahi direnak	Erabiliak	Nahi direnak
Nire adiskideak	%52	%24	%56	%26	%61	%28
Nire familia	%48	%36	%41	%33	%34	%34
Internet	%23	%9	%39	%7	%42	%11
Nire irakasleak	%20	%13	%12	%18	%13	%25
Tailerrak, ikastaroak, hezkuntza afektibo-sexualean espezializatutako profesionalak emandako prestakuntza	%15	%28	%13	%29	%17	%19
Osasuneko langileak	%8	%14	%14	%18	%19	%16
Pornoa	%6	%2	%5	0%	%9	%
Beste batzuk	%1	%7	0%	%4	%1	%4
Bakar bat ere ez. Ez dut erabiltzen edo ez dut behar kanpoko informazio iturririk	%5	0%	%3	%2	%3	%3

### 3.4.Nafarroako gazteek hezkuntza afektibo-sexualaren arloan dituzten interesak.

Nafarroako gazteei hezkuntza afektibo-sexualaren inguruan dituzten interesei buruz galdetzean, nabarmentzekoa da proposatutako gai gehienekiko interes maila handia dutela, ia guztietan 8tik gorako puntuazioa eman baitute. Adostasunarekin, sexu transmisiozko infekzioen (STI) prebentzioarekin eta sexu indarkeriarekin lotutako gaiak dira garrantzitsuenak, 8,9 eta 8,8 puntuko batez besteko interesa sortu baitute, hurrenez hurren.

Era berean, hezkuntza afektibo-sexuala osatzeko, gazteentzat interesgarriak dira metodo antikontzeptiboak eta anatomia sexualaren gaiak, zeinak 8,5 puntutik gorako puntuazioak jaso baitituzte. Bestalde, genero identitateak, sexu desirak, plazer erotikoak eta sexting delakoak ere interesa pizten dute, baina pixka bat txikiagoa, 8,0 eta 8,5 puntu arteko balorazioekin.

Generoaren eta adinaren araberako segmentazio zehatzago batek gako

hauek ematen ditu **haien interesei buruz:**

† **21-25 urteko segmentuak** balorazio pixka bat handiagoa ematen diete adostasunari, sexu transmisiozko infekzioen prebentzioari, eta sexu indarkeriari. **20 urtetik beherakoan artean**, berriz, gainerako taldeek baino interes handiagoa dute genero orientazioaren eta sexu identitatearen gaitan, baina haien lehentasunezko gaiak gainerako adin taldeek dituztenen berberak dira.


† **Emakumeek gizonek baino interes handiagoa agertzen dute gai guztietan.** Aldeak oso txikiak diren arren, gizonek baino interes handiagoa agertzen dute, batez ere, genero identitatearekin (8,6) eta lotura afektiboekin eta harreman osasungarrieekin (8,7) lotutako gaien inguruan. Hori ikusita, ulertzen ahal da garrantzi handiagoa ematen dietela emozioei, identitateari eta automiaketari.

*Gazteen prestakuntza afektibo-sexualean aipatu ez den gairen bat sartuko luketen galdetu zaienean, % 93,2k ez du iradokizun berririk egin, edo dagoeneko iradoki dizkietenak berretsi dituzte. Gai berriren bat atera dutenen artean, nabarmentzekoa da % 1,3k pornografiarekin lotutako gaiak aipatu dituela, eta % 1,5ek, berriz, harreman afektibo-sexualetako osasun emozionala.*

### Hezkuntza afektibo-sexualean interesekoak diren gaiak

*Jarraian adierazitako gaien artean, zeintzuk sartuko zenituzke Nafarroako gazteendako hezkuntza afektibo-sexualeko programa batean? Erantzuteko, erabili eskala: 0 = ez da interesgarria, ez nuke sartuko. 10 = nahitaez sartu behar da, ezinbestekoa da.*

Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa





### 3.5. Anatomia eta fisiologia genitalari buruzko ezagutza.

Nafarroako gazteek anatomia eta fisiologia genitalari buruz duten ezagutza maila, haien balorazioaren arabera, ertaina edo handia da. Gazten % 62,0k uste du bere buruaren inguruan duen ezagutza "ertaina" dela, eta % 31,7k, berriz, ezagutza "handia" duela adierazi du. Bestalde, % 5,9k esan du ezagutza "txikia" duela edo ez duela inolako ezagutzarik.

Autoezagutza maila hori adinaren arabera aztertuta, ikusten ahal da ur-

teekin gora egiten duela, pixkanaka. Hala, 26 urtetik gorakoek adierazten dute autoezagutza mailarik handiena (% 43k esan du ezagutza handia dutela), eta 20 urtetik beherakoetan, berriz, % 19k soilik esan du ezagutza handia duela.


Generoari dagokionez, emakumeek gizonek baino autoezagutza maila handiagoa adierazi dute. Emakumeen % 38k esan du ezagutza handia duela; aldiz, gizonen % 26k adierazi du hori.



#### Anatomia eta fisiologia genitalari buruzko ezagutza maila Zure ustez, zer ezagutza maila duzu gizonetako eta emakumezkoen sexu organoen anatomiarik eta fisiologiari buruz?

Erantzun simplea

Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa



**Nafarroako gazteen % 93k adierazi du familiaren laguntzarekin egin diela aurre pubertaroko aldaketei.** Gainera, % 88k adierazi du bere lagunak oso lagungarri izan zirela gai horiei buruz hitz egiteko orduan.

**Bestalde, % 85ek adierazi du neurri handiagoan edo txikiagoan askotariko baliabideak izan zituela eskuragarri garai horretako aldaketak ulertu ahal izateko.** Prestakuntza fisiko eta emozionalarekin lotuta, % 78k uste du prest zegoela aldaketa horiei aurre egiteko, eta % 21ek, berriz, adierazi du gabeziak izan zituela arlo horretan.

**Inpaktu emozionalaren arloan,** gazteen % 68k esan du ez zuela antsietate edo estres handirik izan pubertaroan, eta % 32k esan du baietz. Era berean, % 70ek adierazi du pubertaroak ez zuela eragin kaltegarririk izan bere autoestimuan, eta gainerako % 30ak, berriz, alderdi horretan eragin negatiboa izan zuela esan du.

**Informazio hori adinaren arabera aztertzen badugu,** ikusten ahal da 20 urtetik beherakoek beren pubertaroa gainerakoek baino modu positiboagoan gogoratzen dutela. Alabaina, zaharragoen artean, garai horretako

oroitzapenak ez dira oso positiboak oro har, eta nabarmentzekoa da 26 urtetik gorakoek garai hori laguntza eta baliabide gutxiagorekin bizi izan zutela, adierazi dutenez. Alabaina, muga horiek gorabehera, esan dutenez, pubertaroak ez zien belaualdi gazteagoei baino antsietate- eta estres-maila askoz ere handiagorik sortu, eta haien autoestimuan ez zuen eragin askoz ere kaltegarriagorik izan ere.

**Nabarmentzekoak dira inkestatutakoan sexuaren arabera pubertaroan izandako bizipenetan aurkitzen ahal diren desberdintasunak.** Oro har, gizonek modu positiboagoan gogoratzen dute aro hori, eta familiaren laguntza handiagoa zutela, baliabide gehiago zituztela eta aldaketei aurre egiteko hobeki prestatuta zedela sentitzen dute. Bestalde, emakumeek adierazi dute lagunengan aurkitu zutela laguntza emozional handiena, baina ez zutela babes maila bera aurkitu familian eta beste baliabide batzuetan, gizonekin alderatuta. Ondorioz, neurri handiagoan adierazten dute bizitzaren aro horretan antsietatea eta estresa izan zutela, eta aldaketek eragin kaltegarria izan zutela beren autoestimuan.




**Pubertaroan aldaketei aurre egiteko gaitasuna**

*Ondorengo baieztapenak pubertaroan aldaketa fisiko eta emozionalei aurre egiteko izan duzun gaitasunari buruzkoak dira. Adierazi zenbateraino zauden ados.*

Erantzunaren eskala: Erabat ados, zertxobait ados, ez oso ados, ez nago batere ados, ez.

Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa



# 5

Arlo afektibo-sexualeko esperientzia

**Elkarrizketatutako gazteen artean, % 8,9k adierazi du ez duela inolako sexu esperientziarik izan (sarketarekin zein gabe) beste pertsona batekin, eta gehienek adierazi dute (% 85,9) sexu harremanen bat izan dutela.**

**Inkestatuen artean, 20 urtetik beherakoak dira neurri handiagoan beste norbaitekin sexu harreman bat izateko aukerarik izan ez dutenak, eta 21 urtetik aurrerako gehienek, berriz, halako esperientziaren bat izan dute. Ez da alde nabarmenik ikusten inkestatuen generoaren arabera.**

**Nafarroako gazteek adierazi dutenaren arabera, batez beste 16 urte dituztenean izaten dute beren lehen sexu harremana beste pertsona batekin (sarketarekin zein gabe). Gehienek (% 62,1) 15 eta 17 urte bitartean zituzten beren lehen sexu harremana izan zutenean; % 20,9k, 18 eta 20 urte bitartean, eta % 14,0k, 15 urtetik be-**



hera. Gazteen % 3,0k soilik izan zuen sexu esperientzia hori 21 urte bete ondoren.

**Inkestatuen artean, 20 urtetik beherakoan belaunaldian, lehen sexu harremana izateko batez besteko adina zertxobait jaitsi da, 15,8 urteraino. Aldiz, adin hori 16,7 urtera igotzen da 21-25 urteko gazteen artean, eta egonkor mantentzen da 16,6 urtetan, 26 urtetik gorakoan artean.**

**Generoaren arabera, aldeak ikusten ahal dira; izan ere, agerian gertatzen da gizonek joera handiagoa dutela beren bizitza sexuala gazteago izanik hasteko. Batez beste, gizonek 16,1 urterekin izan zuten beren lehen sexu esperientzia, eta haien % 17,6k, berriz, 15 urte bete baino lehen. Aitzitik, emakumeek batez beste, 16,7 urterekin izan zuten beren lehen sexu esperientzia, eta % 10,2k adierazi du 15 urte bete baino lehen izan zela.**

**Sexu esperientzia beste pertsona batzuekin (sarketarekin zein gabe)**

Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa





**LEHEN SEXU ESPERIENTZIAREN BATEZ BESTEKO ADINA 16 URTE**

**Lehen sexu esperientzia izateko adina (sarketarekin zein gabe)**

*Gogoan al duzu zenbat urte zenituen zure lehenengo sexu esperientzia (sarketarekin izan zein ez) beste pertsona batekin izan zenuenean?*

Erantzun simplea

Oinarria: beste pertsona batekin sexu harremanen bat (sarketarekin zein gabe) izan duten pertsonak (n=517)



**Nafar gazteen % 25,6rentzat, beste pertsona batekin izan zuen lehen sexu harremanarekiko (sarketarekin zein gabe) gogobetetzea "oso" edo "nahiko gogobetegarria" izen zen, eta hori gogobetetze maila altua da.** Gehienak (% 41,4) neutralago agertu

dira, eta adierazi dute "gogobetegarria" izan zela; aldiz, % 33,0 kritikoagoa da eta ez da hain pozik agertu.

Aldeak ez dira oso nabarmenak, baina, ikusten ahal denez, gazteenek (20 urtetik beherakoek) joera handiagoa

dute beren lehen sexu harremana "oso" edo "nahiko gogobetegarria" dela esateko (% 28,9); aldiz, 26 urtetik gorakoek ez dute hain oroitzapen ona: talde horretako % 20,3k adierazi du oso edo nahiko gogobetegarria izan zela.

zonen % 30,5ek esan du bere lehen sexu harremana oso gogobetegarria izan zela, emakumeen % 20,3ren aldean. Izan ere, emakumeen % 39,5ek esan du lehen sexu harreman hori ez zela oso edo batere gogobetegarria izan, eta gizonen % 27,0k esan du hori; beraz, 12,5 puntuko aldea dago.


Adierazle honetan, **generoaren araberako aldea nabarmenagoa da**. Gi-

**Zure lehen sexu harremanarekiko gogobetetze-maila**

*Zenbateraino asebate zintuen lehenengo sexu harreman edo topaketa horrek*

Erantzun simplea

Oinarria: beste pertsona batekin sexu harremanen bat (sarketarekin zein gabe) izan duten pertsonak (n=517)



**Nafarroako gazteen % 75,2k bikotekide egonkor batekin izan zuten lehen sexu harremana (sarketarekin zein gabe)**, eta gainerako % 24,8ak, berriz, ustekabeko harreman baten testuinguruan.

(% 80,6 eta % 77,5, hurrenez hurren). Aldiz, 21 eta 25 urte bitartekoen artean, eredu hori bestelakoa da; hain zuzen, lehen sexu esperientzia hori bikote egonkor baten barruan izan dutenak % 68,6 dira.

Inkestaturen artean, 16 eta 20 urte artekoek eta 26 urtetik gorakoek antzeko ereduak agertzen dituzte lehen sexu harremanari dagokionez; izan ere, halako harreman gehienak bikotekide egonkor batekin izaten dira


**Era berean, aldeak daude generoaren arabera**; hala, emakumeek gizonek baino joera handiagoa dute lehen sexu harreman hori bikote egonkor baten barruan izateko: emakumeen % 81,8k, eta gizonen % 69,0k.

**Lehen sexu harremanaren testuingurua**

*Zer egoeratan gertatu zen zure lehenengo sexu harremana?*

Iradokitako erantzuna, simplea

Oinarria: beste pertsona batekin sexu harremanen bat (sarketarekin zein gabe) izan duten pertsonak (n=517)



**Nafar gazteen % 66,5ek adierazi du oso edo nahiko pozik dagoela gaur egun bere sexualitatea bizitzen duen moduarekin, eta % 29,6 neutralagoa da, baina pozik dago.** Soilik % 3,8k adierazi du ez dagoela pozik gaur egun bere sexualitatea bizitzen duen moduarekin.


Gazteenek (20 urtetik beherakoek) hobetzeko tarte handiagoa agertzen dute bere sexu bizitzaren inguruan;

hala, % 6,4k adierazi du ez dagoela pozik alderdi horrekin. Ehuneko hori % 2,5era jaisten da 21 urtetik gorakoetan, eta antzeko mailetan mantentzen da 30 urtera arte.

**Adierazle honetan, oso alde txikia dago generoaren arabera;** nolana-hi ere, emakumeen artean pozik ez dauden ehunekoa gizonena baino pixka bat handiagoa da: % 4,2 eta % 3,5, hurrenez hurren.

**Sexualitatea bizitzeko moduari buruzko gaur egungo gogobetetze maila Zein da zure asebetetze maila sexualitatea bizitzeko duzun moduari dagokionez?**

Erantzun sinplea, iradokitakoa  
Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa



# 6

**Sexu transmisiozko infekzioak prebenitzeko metodoak eta metodo antikontzeptiboak**

## 6.1. Sexualitate arduratsuko jarrerak.

**Nafarroako gazte gehienek uste dute sexuari dagokionez bikotekidearekiko komunikazioa funtsezkoa dela, hala harreman osasungarria izateko (% 94,7)** nola sexu harremanetan erabili beharreko metodo antikontzeptiboak elkarrekin erabakitzeo (% 95,3).

**Ildo horretan, ez da alde handirik ikusten belaunaldien artean, baina generoaren arabera bada ñabardura txiki bat;** izan ere, emakumeek joera handiagoa dute bikotearen barruko komunikazioaren garrantzia azpimarratzeko.

Bestalde, **sexu transmisiozko infekzioei (STI) buruzko kontzientziario maila handia ikusi da erantzunetan.** Inkestatuen % 83,3k funtsezkotzat jotzen du sexu transmisiozko infekzioen probak aldizka egitea, betiere sexu bizitza aktiboa izanez gero. Aztertutako adin talde guztietan

funtsezko alderdizat hartzen da; hala, bereziki 21 eta 25 urte bitarteko taldeak eta emakumeek gai honi buruzko kontzientziario handiagoa agertzen dute.

**Metodo antikontzeptiboak erabiltzeko jarrerari dagokionez, inkestatuen % 72,5ek argi adierazi du sexu harremanak saihesten dituela metodo antikontzeptiboak erabiltzeko aukerarik ez badu. Bestalde, % 12,5 ez dator bat jokabide horrekin.** Metodo antikontzeptiboak erabiltzeko joera txikiagoa duen talde horren barruan askotariko egoerak daude, esaterako, seme-alabak izan nahi dituzten bikoteak, LGTB komunitateko pertsonak, metodo antikontzeptibo naturalak aukeratzen dituzten gazteak eta abar. Ildo horretan, ikusten ahal da 21 eta 25 urte artekoak eta emakumeak direla talde kontzientziatuenak.


6 **Sexu transmisiozko infekzioak prebenitzeko metodoak eta metodo antikonzeptiboak**

**Sexualitate arduratsuko jarrerak**

*Ondorengo baieztapenak sexualitate arduratsuari eta informazioan oinarrituriko erabakiak hartzeari buruzkoak dira. Adierazi zenbateraino zauden ados:*

Erantzunaren eskala: Erabat ados. Zertxobait ados. Ez oso ados. Ez nago batere ados

Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa



Azterketa bat egin da gazteek metodo antikonzeptiboaren erabilerarekiko dituzten jarrerari buruz; horretan, beren jokabideari buruz esan dutena eta Nafarroako gazteen portaerari buruz orokorrean duten pertzepzioa alderatu dira.

Ildo horretan, aipatzekoa da inkestatu gehienek, esan dutenez, zuhurtziaz


eta erantzukizunez jokatzan dutela sexu harremanak metodo antikonzeptiborik gabe izateko aukeraren aurrean, baina ez dutela uste Nafarroako gazteek orokorrean jarrera hori dutenik. Horrek iradokitzen du desadostasunak edo tentsioak egoten ahal direla metodo antikonzeptiboaren erabileraren inguruan, populazio talde horren barruan.

**Autopertzepzioa vs gazteria oro har alderatuta**

*Adierazpenarekin erabat ados eta zertxobait ados daudenen ehunekoa (%)*

Erantzunaren eskala: Erabat ados. Zertxobait ados. Ez oso ados. Ez nago batere ados.


Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa



**6.2. Sexu transmisiozko infekzioei eta antikonzeptiboari buruzko informazioa eta ezagutza**

**Eskura dauden metodo antikonzeptiboan**, inguruan erabakiak hartzeari dagokienez, inkestatutako gazteen % 75,4k adierazi du oso ongi ezagutzen dituela dauden aukerak. Alabaina, % 19,2 ez dago oso seguru gai horri buruz, eta % 5,4k adierazi du ez duela gaiari buruzko ezagutzarik. Ezagutza falta hori apur bat handiagoa da 21 eta 25 urte artekoen artean eta, bereziki, emakumeengan.

Bestalde, **sexu transmisiozko infekzio (STI) nagusien sintoma, tratamendu eta kausei buruzko informazioaren** inguruan desinformazio handiagoa dagoela ikusten ahal da. Inkestatuen % 46,4k argi adierazi du baduela gai horiei buruzko informazioa; % 34,9k, berriz, gaiari buruzko zalantzak ditu, eta % 18,5ek adierazi du erabat desinformatuta dagoela. Nagusiki gazteenek adierazi dute ez dutela behar den informazioa eskura, bereziki emakumeek.






6 **Sexu transmisiozko infekzioak prebenitzeko metodoak eta metodo antikonzeptiboak**

**Sexu transmisiozko infekzioei eta metodo antikonzeptiboiei buruzko informazioa eta ezagutza**

*Ondorengo baieztapen hauek sexualitate arduratsuari eta informazioan oinarrituriko erabakiak hartzeari buruzkoak dira. Adierazi zenbateraino zauden ados:*

Erantzunaren eskala: Erabat ados. Zertxobait ados. Ez oso ados. Ez nago batere ados.

Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa



Azterketa bat egin da ikusteko Nafarroako gazteek zenbaterainoko ezagutza dutela uste duten metodo antikonzeptiboiei eta sexu transmisiozko infekzioei buruz. Haiek egin dako adierazpenak alderatu ditugu pertsona berberak Nafarroako gazteria orokorrari buruz gai horren inguruan duten pertzepzioarekin.

Hori aztertuta, nabarmentzekoa da ez dagoela desberdintasun esangu-


raturik inkestatutako gazteek eskura dituzten metodo antikonzeptiboien aukerei eta sexu transmisiozko infekzioei buruz duten ezagutzaren inguruan esan dutenaren eta Nafarroako gazteria orokorrarekiko duten pertzepzioaren artean. Aurkikuntza horrek aukera ematen digu adierazle horien inguruan lortutako informazioaren fidagarritasuna baliokotzeko.

**Autopertzepzioa vs gazteria oro har alderatuta**

*Adierazpenarekin erabat ados eta zertxobait ados dauden ehunekoa (%)*

Erantzunaren eskala: Erabat ados. Zertxobait ados. Ez oso ados. Ez nago batere ados.

Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa



**6** **Sexu transmisiozko infekzioak prebenitzeko metodoak eta metodo antikontzeptiboak**

**6.3. Metodo antikontzeptiboen erabilera.**

**Sarketadun sexu harremanak izan dituztenen artean, gehienek (% 92,8) adierazi dute metodo antikontzeptiboren bat erabili dutela beren azken sexu harremanean.**


egin ahala; hala, % 92,7koa da 21-25 urtekoen artean, eta % 91,7koa 26 urtetik gorakoetan.

Inkestaturen artean, 20 urtetik beherakoek erabili dituzte gehien antikontzeptiboak (% 94,3). Ehuneko hori pixka bat jaisten da adinean gora

Aldeak ez dira oso esanguratsuak, baina emakumeek gizonak baino gehiagotan adierazi dute ez dutela antikontzeptiborik erabili azken sexu harremanean: % 9,9 eta % 4,8, hurrenez hurren.

**Metodo antikontzeptiboen erabilera**

Oinarria: sarketadun sexu harremanak izan dituzte (n=521)



**Gehien erabiltzen diren metodo antikontzeptiboen artean kanpoko preserbatiboa dago, horixe aukeratu baitu Nafarroako gazteen % 71,5ek azken aldiz sarketadun sexu harreman bat izan duenean.** Hurrengo metodorik erabiliena, lehenengoa baino nabarmen gutxiago erabiltzen den arren, pilula antikontzeptiboa da (% 12,7 erabiltzen du). Beste metodo batzuk ere erabiltzen dira, % 10etik beherako erabilera intzidentziaz: metodo naturalak (% 7,1) eta umetoki barneko gailua (% 5,1). Gainerako aukerek % 2,0tik beherako erabilera intzidentzia dute.


Taldearen adinaren arabera, nabarmentzekoa da 20 urtetik beherakoen artean metodorik ohikoena kanpoko preserbatiboa dela, % 90,6k erabiltzen baitu. Adinean aurrera egin ahala, metodoen erabilera dibertsifikatzen da; hala, pilula antikontzeptiboa hobesten da, eta metodo naturalak eta beste aukera batzuk ere erabiltzen dira. Inkestaturen artean, 26 urtetik gorakoetan, pilula antikontzeptiboaren erabilera % 23,5eraino igotzen da.

**Erabilitako metodo antikontzeptibo mota**

*Sexu harremanetan baginako sarketa egon zen azken aldian, erabili zenuen antisorgailu hauetakoren bat?*

Erantzun anitza, iradokitakoa

Oinarria: sarketadun sexu harremanak izan dituzte eta metodo antikontzeptiboren bat erabili dute (n= 483)



**6** **Sexu transmisiozko infekzioak prebenitzeko metodoak eta metodo antikonzeptiboak**

**6.4. Sexu transmisiozko infekzioak prebenitzeko metodoen erabilera.**

**Sarketadun sexu harremanak izan dituzten nafar gazteen artean, % 64,6k adierazi du sexu transmisiozko infekzioak (STI) prebenitzeko metodoen bat erabili duela azken sexu harremanean.**

rakoen artean, prebentzio metodoen erabilerak nabarmen egiten du behera, % 46,3k soilik erabili baititu.


**Generoari begiratzen badiogu,** gizonek neurri handiagoan diote sexu transmisiozko infekzioak prebenitzeko metodoen bat erabili dutela azken sexu harremanean (% 70,8); aldiz, ehuneko hori % 57,7ra jaisten da emakumeen kasuan.

Metodo horiek erabiltzea ohikoagoa da 20 urtetik beherakoen artean; hain zuzen, % 79,1ek adierazi du azken sexu harremanean halakoren bat erabili duela. Aldiz, 26 urtetik go-

**Sexu transmisiozko infekzioak prebenitzeko metodoen erabilera**  
*Sexu harremanak izan zenituen azken aldian, erabili zenuen transmisiozko infekzioak prebenitzeko metodorik?*

Erantzun simplea, iradokitakoa

Oinarria: sarketadun sexu harremanak izan dituzte (n=536)



Bestalde, sarketadun sexu harremanak izatean sexu transmisiozko infekzioak (STI) prebenitzeko metodorik erabili ez dutenen artean, gehienek adierazi dute sexu harremana bikotekide egonkor batekin izan zela eta horregatik ez dutela halakorik erabili. Aipatutako gainerako arrazoiek garrantzi nabarmen txikiagoa dute;


hala, aipagarriak dira bikotearenganako konfiantza eta segurtasuna (% 5,8) eta ugalketa helburuak (% 4,2). Oso kasu gutxitan aipatu dira beste argudio hauek: kontrolik gabeko desioa izatea, prebentzio metodoak erabiltzeko astirik ez izatea eta halako metodorik erabiltzen ez denean sarketak plazer handiagoa eragitea.

**Sexu transmisiozko infekzioak prebenitzeko metodorik ez erabiltzearen arrazoiak**

*Ez duzunean sexu transmisiozko infekzioak prebenitzeko metodorik erabiltzen, zergatik da?*

Erantzun anitza, iradokitakoa

Oinarria: sarketadun sexu harremanak izan dituzte, baina ez dute STIak prebenitzeko metodorik erabili (n=175)





Azken aldiz sarketadun sexu harreman bat izatean sexu transmisiozko infekzioak (STI) prebenitzeko metodoen bat erabili zutenen artean, % 95,7k gizonen kanpoko preserbatiboa aukeratu zuten, eta % 4,1ek,

berriz, barneko preserbatibo feminoa. Azken metodo hori ohikoagoa da 21 eta 25 urte bitarteko taldean, eta gutxiago erabiltzen da beste adin batzuetako gazteen artean.

**6** **Sexu transmisiozko infekzioak prebenitzeko metodoak eta metodo antikonzeptiboak**

**Sexu transmisiozko infekzioak prebenitzeko erabilitako metodo mota**  
*Sexu harremanak izan zenituen azken aldian, metodo hauetako zein erabili zenuen sexu transmisiozko gaixotasunak prebenitzeko?*

Erantzun anitza, iradokitakoa  
 Oinarria: azken aldiz sarketadun sexu harreman bat izatean sexu transmisiozko infekzioak prebenitzeko metodoren bat erabili dute (n= 346)




**6.5. Sexu transmisiozko infekzioen intzidentzia.**

**Nafarroako gazte gehienek diotenez, ez dute inoiz sexu transmisiozko infekziorik (STI) izan, baina adierazpen hori ez dago beti proba diagnostikoetan oinarrituta.** Zehazki, % 21,6k adierazi du ez duela halako infekziorik izan, hori egiaztatzeko probaren bat egin ondoren. Guztira, nafar gazteen % 5,4k adierazi du STI motaren bat izan duela.

**Halako infekzioen intzidentzia handiagoa da adinean gora egin ahal.** Hala, 20 urtetik beherakoen artean, intzidentzia % 0,7koa da; % 3,9ra igotzen da 21 eta 25 urte bitarteko gazteen artean, eta % 11,8ra ino iristen da 26 urtetik gorakoetan. Halaber, alde oso txikia ikusten ahal da generoen arteko intzidentzian: % 5,7koa da gizonetan eta % 5,0koa, emakumeetan.

**Sexu transmisiozko infekzioen intzidentzia**  
*Izan al duzu inoiz sexu transmisiozko infekziorik (STI)?*  
 Erantzun sinplea, iradokitakoa  
 Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa





# 7

Abusu eta indarkeria sexuala

**Nafarroako gazteen % 54,4k adierazi du nolabaiteko abusu edo indarkeria sexuala pairatu duela bere bizitzan.**

**Ehuneko hori % 70,4ra igotzen da emakumeen kasuan, eta intzidentzia handiagoa du 21 eta 25 urte bitartekoen artean;** hain zuzen, adin talde horretakoen % 61,1ek adierazi du abusu edo indarkeria sexualeko egoeraren bat bizi izan duela.

**Abusu eta/edo indarkeria sexualeko kasuen intzidentzia**

Iradokitako erantzuna, anitza

Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa




%54,4

**Bai,**  
nolabaiteko abusu edo indarkeria  
sexuala pairatu dute noizbait



%45,6

**Ez dute inoiz**  
inolako abusu edo  
indarkeria sexualik pairatu



Oro har, ikusten ahal da 21 eta 25 urte bitartekoek erregistratu dutela intzidentziarik handiena aztertutako abusu eta indarkeria sexual mota ia guztietan. Aldiz, 20 urtetik beherakoek intzidentzia nabarmen txikiagoa agertu dute kasuistika guztietan. Bestalde, 26 urtetik gorakoak tarteko posizio batean daude, baina intzidentzia pixka bat handiagoa dute bi egoera zehatzetan: adostasunik gabe fotografiatu edo grabatzearekin lotuta eta bortxaketa kasuetan.

**Generoari begiratzen badiogu,** datuek agerian jartzen dute emakumeak direla abusu edo indarkeria sexual mota guztiak gehien pairatzen dituztenak, alde handia baitago gizonetik. Arrakala hori bereziki nabarmena da hitzezko gehiegikerien eta nahi ez diren komentario sexualen kasuan. Dena dela, gizonengan intzidentzia nabarmen txikiagoa da aztertutako esperientzia guztietan.

**Indarkeria motarik ohikoena nahi ez diren piropoak, laudorio sexual deserosoak eta gorputzari**

**buruz adostasunik gabe egindako komentarioak dira, inkestatuen % 34,4k aipatu baititu halakoak.** Ehuneko horrek barne hartzen ditu emakumeen % 53,5 eta gizonen % 18,2. Hitzezko gehiegikeriak dira bigarren kasuistika ohikoena, % 29,5ek pairatu baititu; horren barnean, emakumeen % 46,7 aurkitzen ahal dugu.

Adostu gabeko ukituak dira hirugarren esperientziarik ohikoena, inkestatuen % 24,8k pairatu baititu, aintzat hartuta emakumeen % 32,8k pairatu dituela, eta gizonen % 17,2k.

Aztertutako gainerako egoeretan, intzidentzia % 12tik behera jaisten da gazte guztiak oro har hartuta, eta % 16tik behera, emakumeen kasuan.

**Azkenik, aipagarria da azterlanean parte hartu duten gazteen % 32,3k adierazi duela azken 12 hilabeteetan halako egoeraren baten lekuko izan dela bere inguruan.** Ehuneko hori % 41,9koa da emakumeen artean, eta % 23,1koa, gizonen artean.


**Bizi izandako abusu eta/edo indarkeria sexual mota**

*Baliteke galdera hau bitxia izatea, baina garrantzitsua da jarraian landuko dugun gaiaren inguruan informazioa izatea, ikusgaitasuna eman ahal izateko. Ahalik eta zintzoen erantzutea gustatuko litzaziguke.*

*Pairatu al duzu inoiz jarraian adierazten diren abusu edo indarkeria moduren bat?*

Erantzun anitza, iradokitakoa

Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa







Abusu eta/edo indarkeria sexualeko kasuak gertatzen diren testuinguruak eta inguruneak aztertu ondoren, funtsezko puntu hauek nabarmentzen dira:

#### 1. Eremu publikoak dira agertoki nagusia:

Kasu gehienak **eremu publikoetan** eta aisialdiko testuinguruetan gertatzen dira, esaterako, jaietan, ekitaldi sozialetan (% 57,8) eta gaueko aisialdiko lokaletan (tabernak, diskotekak, aretoak, etab.) (% 56,3).

Oro har, **kasuen % 24,6** beste mota bateko eremu publikoetan gertatu direla jakinarazi da, eta horrek agerian jartzen du beharrezkoa dela halako tokietako segurtasuna bermatzea, bereziki emakumeena, haiek baitira toki horietan halako abusuak pairatu izana gehien jakinarazi dutenak.

#### 2. Eremu digitaleko intzidentzia:

**Online mundua kasuen % 11,1ean** aipatu da sexu indarkeriaren agertoki gisa; hortaz, argi dago garrantzitsua dela plataforma digitaletan gertatzen den jazarpenari eta abusuari heltzea.

#### 3. Laneko eta hezkuntzako eremuak:

Beste eremuak bezain ohikoak ez diren arren, **lantokia** eta **ikastetxeak** ere aipatu dira abusuak gertatzen diren testuinguru gisa, **% 7,0ko** eta **% 3,7ko** intzidentziarekin, hurrenez hurren.

#### 4. Familiaren eta kirolaren eremuak:

Ez da hain ohikoa, baina noizean behin halako kasuak identifikatzen dira **etxean**<sup>1</sup> (% 2,2) eta **kirolaren ingurunean** (% 0,4); beraz, oso ohikoak ez diren arren, halako egoerak ere kontuan hartu behar dira, sarritan ikusezin bihurtzen baitira.

1. 2022an, SEXVIOL lantaldeak azterlan hau argitaratu zuten: Desmontando Mitos acerca de la Agresión Sexual. Un estudio de caso sobre la Audiencia Provincial de Madrid. Horretan adierazi zuenez, erasotzaileen % 17,4k hurbileko lotura bat zuten biktimarekin, eta % 50,6 biktimaren ezaguna zen. Bestalde, kasuen % 60,1 etxean gertatzen da.



7 Abusu eta indarkeria sexuala

Abusu eta indarkeria sexualeko kasuak gertatzen diren eremuak

Zer lekutan gertatu zen edo ziren adierazitako erasoak?

Berezko erantzuna, anitza

Oinarria: noizbait abusu eta/edo indarkeria sexuala pairatu edo ikusi duten pertsonak (n= 328)



EZ EZETZ DA  
SOILIK BAI  
DA BAIETZ

# 8

Adostasunaren  
kultura

Nafar gazteek adostasunaren kulturari buruz duten ezagutza aztertuta, ikusten ahal da ongi ezagutzen dutela kontzeptua; **% 95,1ek adierazi du badakiela zer esan nahi duen**, eta % 2,3k, berriz, horri buruz entzun duela, baina ez dakiela ziur zer esan nahi duen zehazki. Bestalde, % 2,6k adierazi du ez dakiela zer esan nahi duen.


**Ikusten ahal denez, gazteenek (20 urtetik beherakoak) gutxiago ezagutzen dute adostasunaren kontzeptua**, eta ezagutza hori egonkor mantentzen da adin handiagoa duten taldeen artean. Ez da alde nabarmenik ikusi kontsultatutako pertsonen generoari dagokionez, baina ezagutza pixka bat handiagoa erregistratu da (% 1,0) emakumeen artean.

**Adostasunaren kulturari buruzko ezagutza maila**

*Ba al dakizu "ez ezetz da" leloaren esanahia sexu adostasunaren testuinguruan?*

Erantzun sinplea, iradokitakoa

Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa



Datuak ikusita, agerian geratzen da gazteek oso ongi ulertzen dutela sexu adostasunaren kontzeptua eta sexu harremanetan garrantzitsua dela onartzen dutela. Nolanahi ere, oraindik ere nolabaiteko tartea dago adostasun esplizituaren normalizazioa indartzeko eta kultura kolektiboan erabat integratuta dagoela ziurtatzeko, bereziki zalantzak edo erresistentziak dituzten artean.

**Kontu aipagarri batzuk:**

**Adostasunari buruzko ezagutza maila altua da, % 91,4k** adierazi baitu ezin hobeki dakiela zer den sexu harremanetako adostasuna.

Gainera, **gehienak bat datoz adostasunak abusuak prebenitzeko orduan duen garrantziari buruz; izan ere, inkestatuen % 96,1 "erabat ados"** eagertu da sexu adostasuna ulertzeak eta errespetatzeak abusuak eta indarkeriak prebenitzen laguntzen ahal duela dioen adierazpenarekin, % 2,6k adierazi du "zertxobait ados" dagoela horrekin.

**Adostasunaren malgutasunari dagokionez, % 91,5 "erabat ados"** agertu da sexu harreman batean adostasuna edozein unetan aldatzen ahal dela dioen adierazpenarekin, eta % 5,8 adierazpen horrekin "zertxobait ados" agertu da; hala, argi dago nahiko zabaldua dagoela adostasuna ez dela estatikoa eta edozein unetan botatzen ahal dela atzera.

**Inkestatuen % 88,7 eroso sentitzen da sexu harreman batean adostasuna eskatu edo berrestearrekin,** baina % 5,5ek esan du ez dagoela batere ados; hori ikusita, pentsatzen ahal da nolabaiteko erresistentziak edo desinformazioa daudela sektore minoritario batean.

**Adostasun esplizitua: % 85,6 "erabat ados" agertu da sexu harreman bakoitzean adostasuna esplizituki eman behar izatearekin,** baina % 5,5ek esan du ez dagoela batere ados; hori ikusita, pentsatzen ahal da nolabaiteko erresistentziak edo desinformazioa daudela sektore minoritario batean.

**"Ez ezetz da" esaldiaren muga argia: % 83,9k uste du esaldi horrek muga argi bat ezartzen duela adostutako sexu harremanen eta bortxaketaren artean,** baina % 6,2 ez dago ados.

**Adostasunaren kontzeptuaren integrazioa gazteen kulturaren kontzeptua ongi txertatuta dagoela gazteen kulturaren,** eta % 12,4, berriz, ez dago horrekin batere ados. Horrek agerian jartzen du norbanakoek ongi ulertzen dutela adostasunaren kontzeptua, baina oraindik ere lan egin behar dela kultura hori esparru kolektiboan integratzeko.

Aintzat hartuta kontsultatutako gazteen adina, **ikusten da, oro har, 26 urtetik gorakoek dutela gai honi buruzko kontzientziarik handiena.** Aldiz, ikasteko tarte handiagoa dago, bereziki, 20 urtetik beherakoan artean; izan ere, adostasunaren kulturaren garrantzia onartzen duten arren, zalantza gehiago dituzte zenbait alderditan.


**Inkestatuen sexuari begiratzen badiogu, ikusten ahal da adostasunaren kulturarekiko adostasun maila oso antzekoa dela genero guztietan, baina emakumeek sakonago ulertzen dutela "ez ezetz da" kulturak zer esan nahi duen.** Nolanahi ere, alde nabarmena dago sexu harreman batean adostasuna edozein unetan aldatzen ahal dela dioen adierazpenari dagokionez, gizonen baino % 8,9 gehiago baitira kontzeptu hori argi eta garbi ulertzen duten emakumeak.

**Adostasunaren kulturarekiko jarrerak**

Adierazi zein mailataraino zauden ados harreman afektibo-sexualetako adostasunari buruzko baieztapen hauekin.

**Adostasunari:** sexu ekintza batean parte hartzeko ahozko akordioa. Adostasuna modu osasuntsu eta kontzientea da sexu harremanean parte hartuko duten alde guztiak gustura dauden erakusteko.


Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa



Nafarroako gazteen % 82,0k dio adostasunari buruzko hezkuntzak inpaktu handia duela abusuak eta bortxaketak prebenitzeko orduan. Inkestatuen % 13,0k posizionamendu neutrala du, eta uste du horren inpaktua ertaina dela; eta soilik % 5,0k uste du ez duela inolako inpakturik.


**Informazio hori gazte inkestatuen adinaren arabera aztertzen badugu,**

ikusten ahal da 20 urtetik behar-rakoak zertxobait eszeptikoagoak direla hezkuntza horrek abusuak eta bortxaketen prebentzioan duen inpaktuari eta ondorioei buruz, baina eszeptizismo hori murriztu eginen adinean aurrera egin ahala. Gainera, emakumeek eszeptizismo handixeagoa agertzen dute, baina gizonekiko aldea ez da esanguratsua.




**Hezkuntzak adostasunaren kulturaren duen inpaktuari buruzko pertzepzioa**  
*Zure ustez, zer eragin du hezkuntzak adostasunaren gaian eta abusuen eta bortxaketen prebentzioan?*

Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa



# 9

**Pornografia eta harreman afektibo-sexualak**



**Inkestatutako hamar gaztetatik seik adierazi dute noizbait ikusi dutela eduki pornografikoren bat; aldez, hamarretik lauk adierazi dute ez dutela inoiz halako materialik kontsumitu.**

Generoaren arabera begiratzen badiegu, eduki pornografikoa ikusi dutenen artean, emakumeen proportzioa nabarmen txikiagoa da, % 37,9 baitira, gizonen % 82,2aren aldean.

Hala, alde nabarmenak daude generoari begirata, baina adinari dagokionez ez dago hainbesteko alderik.


**Nolanahi ere, ikusten ahal da gazteenen artean kontsumo txikiagoa dagoela:** 20 urtetik beherakoen % 56,5ek adierazi du horrelako edukia ikusi duela, baina ehuneko hori % 60,5era igotzen da 21 eta 25 urte bitartekoen artean, eta % 64,9ra 26 eta 30 urte bitartekoen artean.

**Pornografia ikustea**

*Ikusi al duzu inoiz eduki pornografikorik*

Erantzun sinplea, iradokitakoa

Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa



**Eduki pornografikoa ikusi dutela adierazi dutenen artean, halako edukia lehen aldiz ikusteko batez besteko adina 14,4 urtekoa da.** Kezkagarria da inkestatuen % 5,8k eduki horiek 8 eta 10 urte bitartean zituenean ikusi izana, eta % 34,5ek 11 eta 13 urte bitartean zituenean.

**Generoari begiratuta:** alde nabarmenak ikusten ahal dira adierazle honetan: gizonek batez beste 13,7 urte dituzte lehen aldiz halako edukiren bat ikusten dutenean; aldiz, emakumeek batez beste 15,9 urte dituzte egoera hori gertatzen denean.

**Ikusten ahal denez, eduki pornografikoa lehen aldiz ikusteko adinak behera egin du belaunaldi gazteen artean.** Hala, 20 urtetik beherakoen taldean, lehen aldiz halako edukia ikusteko batez besteko adina 13,5 urte da; aldiz, 14,6.

Nahiz eta Zigor Kodearen 186. artikuluan adingabeen artean pornografia zabaltzea zigortuta dagoen<sup>2</sup>, eta Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko 2022ko Lege Orokorrak bere 89. artikuluan bideo hornitzaileei adina egiaztatzeko mekanismoak ezartzea eskatzen dien, gazteen % 84,2k eduki pornografikoa ikusi du 17 urte bete aurretik.




2. 2020an, Save the Children erakundeak azterlan kualitatibo bat argitaratu zuen. Horretan, gazteen arteko pornografiaren kontsumoa, praktika kaltegarriak eta sareen erabilera aztertzen ziren, eta agerian geratzen zen gazteek halako edukiak eskuragarri dituztela, debekuak egon arren. Inkestatuen artean, 13 eta 17 urte bitarteko nerabeen % 62,5ek pornografia ikusi du noizbait bere bizitzan, dela Internet bidez, dela beste bide batzuetatik.



**Lehen eduki pornografikoa ikusteko adina**


*Gogoan al duzu noiz ikusi zenuen lehenengo aldiz eduki pornografiko bat?*

Oinarria: lehen eduki pornografikoa noiz ikusi zuten gogoratzen duten pertsonak (n= 326)



**Lehen eduki pornografikoa ikusteko batez besteko adina**

Oinarria: lehen eduki pornografikoa noiz ikusi zuten gogoratzen duten pertsonak



**Hamar lagunetik lauk adierazi dute gutxienez hilean behin kontsumitzen dutela eduki pornografikoa: % 22,4k gutxienez astean behin eta % 17,3k gutxienez hilean behin.** Gehienek (% 42,9) gutxitan edo hilean behin baino gutxiagotan ikusten dute, eta % 16,0k adierazi du ez duela inoiz eduki pornografikorik kontsumitzen.

**Gazteenek, bereziki 20 urtetik beherakoek, kontsumitzen dituzte halako edukiak maiztasun handienez, eta 21 eta 25 urte bitartekoek kontsumo eredu oso antzekoak dituzte.** Aldiz, adinez zaharragoak direnek, 26 urtetik gorakoek, maiztasun txikiagoz ikusten dituzte halako edukiak. Izan ere, 26 urtetik gorakoek talde horretan, inoiz ez dutela eduki pornografikorik ikusten esan dutenen ehunekoa bikoiztu egiten da; hala, 20 urtetik beherakoek artean % 10,4k esan du hori, eta 26 urtetik gorakoek % 21,3k.



**Era berean, alde nabarmenak daude generoaren arabera:** emakumeen artean, eduki pornografikoa gutxitan ikusten dutela edo inoiz ez dutela ikusten diotenen ehunekoa % 90,4 da, eta gizonen kasuan, berriz, % 45,2.

**Eduki pornografikoa ikusteko maiztasuna**

*Gaur egun, pornoa ikusten dut...*

Erantzun sinplea, iradokitakoa

Oinarria: eduki pornografikoren bat ikusi duten pertsonak (n=365)



**Eduki pornografikoren bat gutxienez behin ikusi duten pertsonen artean, hamarretik zazpi adierazi dute beren harreman afektibo-sexualek ez dutela zerikusirik pornografian erakusten denarekin.** Gainera, gehienek (% 65,5) uste dute pornografian emakumeak modu iraingarrian irudikatzen direla, baina ez

dute halako erantzun irmorik ematen harremanen irudikapen bidezkoa goa eta etikoagoa sustatuko lukeen pornografia mota bat proposatzeko orduan. Inkestatuen % 36,7k argi eta garbi uste du hala izan beharko lukela; aitzitik, % 22,46 ez dago ados proposamen horrekin.

**Pornografiaren eraginari dagokionez, hau da nafar gazteen iritzia:**

- ✦ Gazteen % 47,1ek uste du pornografiak eragina izaten ahal duela bikote baten jokabide sexualen inguruko espektatibetan.
- ✦ Bestalde, % 41,0k uste du eragina izaten ahal duela sexu harremanak izateko autoestimuan eta konfiantzan.
- ✦ Eta % 31,8k argi eta garbi adierazi du pornografiaren kontsumoak eragina duela kontsumitzaileen osasun emozionalean; hala, % 41,7 bat dator adierazpen horrekin eta % 24,5, berriz, ez.
- ✦ Gazteek, oro har, uste dute pornografiak eragin txikiagoa duela pertsonen beren desio eta espektatiba sexualak bikotekideei helarazteko moduan: % 45,4 "zertxobait ados" dago adierazpen horrekin, eta % 26,0k, berriz, uste du ez dagoela halako eraginik.
- ✦ Pornografian aurkezten dena errealitatean errepikatzekeo dagoen presioaren inguruko iritziak bananduta daude. Hala, % 58,8 erabat edo zertxobait bat ados dago adierazpen horrekin, eta % 32,8k adierazi du ez duela presio hori hautematen.
- ✦ Pornografiak portaera eta espektatiba sexualatan duen eraginari buruz galdetzean, % 75,2k adierazi du ez duela eraginik, eta % 24,2k onartu du nolabaiteko eragina duela.
- ✦ Pornografiak orientazio edo praktika sexual batzuekiko pertzepzioa edo irekitasuna aldatzeko duen ahalmenari dagokionez, % 69,6k adierazi du ez duela eragin hori sentitu, eta % 29,9k, berriz, horren eragina izan duela onartu du.

**Bestalde, ikusten ahal da iritziak desberdinak direla adin taldearen arabera.** Gazteenek eduki pornografikoen eragin txikiagoa ikusten dute beren portaera, desio eta espektatiba sexualatan; aldiz, 26 urtetik gorakoek neurri handiagoan adierazi dute eduki pornografikoak ikusteak beren bizitza afektiboan eragina duela. Bereziki talde horrek irimotasun handiagoz adierazten du pornografiaren kontsumoak eragina duela kontsumitzailearen osasun emozionalean.


**Pornografiaren kontsumoaren pertzepzioa generoaren arabera aztertuta, ikusten, ikusten ahal da emakumeek neurri handiagoan adierazi dutela pornografiak eragina duela harreman afektibo-sexualatan, oro har.** Alabaina, pornografiaren kontsumoak beren portaera edo espektatiba sexualatan eragin duen edo orientabide eta praktika sexual batzuekiko duten pertzepzioa edo irekitasuna aldatu duen aztertzean, egiaztatzen da eragina nabarmenagoa dela gizonen artean, emakumeen artean baino.

**Pornografiaren eragina**

*Adierazi zer puntutaraino zauden ados pornografiari buruzko baieztapen hauekin*

Erantzunaren eskala: 1. Erabat ados. 2. Zertxobait ados 3. Ez nago oso ados 4. Ez nago batere ados

Oinarria: eduki pornografikoren bat ikusi duten pertsonak (n=365)




9 Pornografia eta harreman afektibo-sexualak

Pornografiaren eragina

Adierazi zer puntutaraino zauden ados pornografiari buruzko baieztapen hauekin

Erantzunaren eskala: 1. Erabat ados. 2. Zertxobait ados 3. Ez nago oso ados 4. Ez nago batere ados

Oinarria: eduki pornografikoren bat ikusi duten pertsonak (n=365)



Pornografiak nafar gazteen harreman afektibo-sexualen intimitate emozionalean duen eraginean sakontzean, **ikusten ahal da hamaurretik zortzik biribilki adierazi dutela halako edukien kontsumoak ez duela beren bizitza emozionalean eragiten**, eta ehuneko hori nahiko konstante mantentzen da adin talde guztietan; nolana ere, pixka bat handiagoa da 20 urtetik beherakoen artean (% 84,0k dio ez diola eragiten) eta emakumeengan (% 86,0k dio ez diola eragiten).


Bestalde, kontsultatutako gazteen % 2,0k soilik esan du halako edukiak kontsumitzeagatik intimitate emozionalean hobekuntza nabaritu dutela, eta horretan ez da alde nabarmenik ikusten adinaren edo generoaren arabera. Era berean, **% 4,2k soilik uste du pornografiaren eragina negatiboa dela bere ingurune pertsonalean**, uste baitu bere harremanak eta intimitate emozionala okertzen dituela. Beste adin taldeek baino neurri handiagoan adierazi dute hori 26 urtetik gorako pertsonak.


Pornografiaren eragina

Zer eragin du pornografia kontsumitzeak zure harremanen intimitate emozionalean?

Erantzun sinplea, iradokitakoa.

Oinarria: eduki pornografikoren bat ikusi duten pertsonak (n=365)





# 10

## Gazteen ahotsa

**Bukatzeko, kontsultatutako nafar gazteei eskatu zaie erantzun ireki baten bidez adieraz dezatela zer mota-tako ekimenak uste duten ezarri beharko lituzkeela Nafarroako Gobernuak gazteen artean, harreman afektibo-sexual osasuntsuak sustatu eta pornoaren indarkeriaren eta adostasunaren gaiak jorratzeko.**

Gazteek eskaera argia egin dute; hala, erdiek gaiaren inguruko hezkuntza eta informazio gehiago eskatu dute, hitzaldiak, tailerrak edo beste edozein metodo edo bide erabiliz.

Eskaera hori nabarmenagoa da emakumeen eta 21 eta 25 urte bitarteko gazteen artean, baina adin talde guz-tiek interes handia agertu dute halako ekimenetan.



**Nafarroako Gobernuari proposatutako ekimenak**

*Zure ustez, zer ekimen mota jarri beharko luke martxan Nafarroako Gobernuak harreman afektibo-sexual osasuntsuak sustatzeko eta porno-indarriaren eta adostasunaren gaiak lantzeko?*

Erantzun irekia

Oinarria: elkarrizketatuen guztizkoa

Ez du bestelako premiarik: %0,1



**Bukaerako gogoetak**

**Hezkuntza afektibo-sexuala nafarroan**

**Nafarroan hezkuntza afektibo-sexuala gazte gehienengana iritsi da (% 92,3),** nagusiki hezkuntza sistemen bitartez (% 85,6). Belaunaldi gazteenek eskuragarriago dute preskakuntza hori, batez ere hezkuntza formalaren bidez; izan ere, ez zen neurri berean iritsi batez ere 25 urtetik gorako belaunaldietara.

tzeko. Hain zuzen ere, ikusten ahal denez, hezkuntza afektibo-sexuala hezkuntza sisteman zenbat eta integratuago egon, belaunaldi gazteek iturri informalekiko (lagunak eta Internet, adibidez) mendekotasun txikiagoa dute informazioa lortzeko orduan.

**Hezkuntza ingurunean emandako heziketa horren kalitatea txikia dela adierazi dute,** eta eskasa dela eta edukiak osatugabeak direla kritikatu dute, bereziki emakumeek eta gazte helduek, zeinak gehiagotan adierazi baitute gabeziak daudela jaso zuten informazioan. Belaunaldi batzuetan eta besteetan, lagunak eta familia dira eta izan dira informazio iturri nagusiak, baina badago interesa tailerren, osasuneko profesionalen eta irakasleen rola indar-

**Aldaketa horiek agerian jartzen dute nolabaiteko bilakaera egon dela hala hezkuntzaren eskuragarritasunean nola belaunaldi talde bakoitzaren espektatiba eta lehen-tasunetan.** Halaber, datuak aztertuta, ikusten ahal da beharrezkoa dela hezkuntza afektibo-sexualaren kalitatea eta kantitatea hobetzea eta generoaren eta adinaren arabera desberdintasunetara eta bakoitzaren espektatibetara egokitzea, eta, aldi berean, familien rola eta iturri formalak eta instituzionalak indartzea.

## Pubertaroa

**Belaunaldi gazteenek (20 urtetik beherakoak) pubertaroa modu positiboagoan gogoratzen dute**, batez ere, familiaren eta gizartearen babes handiagoa izan dutelako, eta beste-lako baliabide batzuk eskuragarriago izan dituztelako. Aldiz, 26 urtetik gorakoek laguntza gutxiago izan zuten etapa horretan, baina ez dute agertzen gazteenek baino antsietate- eta estres-maila handiagorik, ez eta autoestimuan pairatutako inpakturik ere.

**Gizonek modu positiboagoan gogoratzen dute etapa hori, eta familiaren babes eta prestakuntza handiagoa jaso dutela adierazten dute;** emakumeek, berriz, beren lagunen babes emozionala nabarmentzen dute, baina adierazi dute familiaren babes txikiagoa, antsietate handiagoa eta autoestimuan inpaktu negatibo handiagoa izan dituztela. Datu horiek agerian jartzen dute belaunaldiz belaunaldi hobekuntzak gertatu direla pubertaroan jasotako laguntzari dagokionez, baina badira, oraindik ere, generoaren arabera desberdintasunak jasotako laguntzaren eskuragarritasunari eta kalitateari dagokienez.

## Arlo afektibo-sexualeko esperientzia

**Beste pertsona batekin izandako lehen sexu harremanaren batez besteko adina (sarketarekin zein gabe) 16 urte ingurukoa da.** Aipagarria da nola lehen harremana izateko adin hori jaitsi egin den, 20 urtetik beherako gazteen artean zertxobait txikiagoa baita. Alderdi horretan generoaren artean dauden aldeek agerian jartzen dute gizonek lehenago izaten dutela beren lehen sexu harremana, emakumeekin alderatuta.

**Gazte gehienek bikotekide egonkor batekin bizi izan zuten beren lehen sexu harremana, eta joera hori ohikoagoa da emakumeen artean gizoneen artean baino.** Lehen esperientzia sexualarekiko gogobetetzeari dagokionez, askotariko sentimenduak aipatu dira. Batzuen ustez, oso gogobetegarria izan zen, eta beste batzuk neutral edo asegabe agertu dira. Bereziki emakumeek gizonek baino asegabetasun handiagoa agertu dute; beraz, pentsatzen ahal da desberdintasunak daudela lehen esperientzia horretako dinamiketan edo espektatibetan.

**Gaur egun, gazte gehienak pozik daude beren bizitza sexualarekin.** Alabaina, 20 urtetik beherakoek asegabetasun maila handiagoak dituzte 21 urtetik gorakoekin alderatuta, baina ez dago aldaketa handirik generoaren arabera bereizita.

## Sexu transmisiozko infekzioak prebenitzeko metodoak eta metodo antikonzeptiboak

**Azterketak agerian jartzen du nafar gazteek, oro har, sexualitate arduratsuekiko konpromisoa dutela,** baina aldakuntzak daude adinaren eta generoaren arabera. Oro har, asko baloratzen dituzte bikotearen komunikazioa eta metodo antikonzeptiboak buruz elkarrekin erabakitzea, eta emakumeek neurri handiagoan ematen diete garrantzia alderdi horiei.

**Oso kontzientziatuta daude sexu transmisiozko infekzioen (STI) prebentzioari buruz,** bereziki 21 eta 25 urte bitarteko gazteak; izan ere, adin talde horrek joera handiagoa du proba diagnostikoak erregularitasunez egiteko. Nolanahi ere, informazio arrakalak ikusten dira; hain zuzen, gazteenak dira, bereziki emakumeak, sexu transmisiozko infekzioen sintomei eta tratamenduei buruz gutxien dakitenak.

**Bestalde, 20 urtetik beherako gazteek erabiltzen dituzte metodo antikonzeptiboak jarraitutasun handienaz;** adinean aurrera egin ahala, hautatutako aukerak askotarikoagoak izaten dira. Metodori erabiliena kanpoko preserbatiboa da eta, ondoren, pilula antikonzeptiboa, adin handieneko taldeetan.

**STIak prebenitzeko metodo zehatzak erabiltzea, esaterako, kanpoko preserbatiboa, ohikoagoa da 20 urtetik beherako artean;** aldiz, adinez zaharragoak diren taldeetan, nabarmen gutxiago erabiltzen dituzte. Halako metodori erabiltzen ez dutenen artean, horretarako emandako arrazoi nagusiak bikotekidearenganako konfiantza eta harremanaren egonkortasuna dira, baina badira garrantzi txikiagoko beste arrazoi batzuk ere.

**Azkenik, inkestatuek adierazi dutenari jarraikiz, sexu transmisiozko infekzioen intzidentziak gora egiten du adinean gora egin ahala, eta handiagoa da 26 urtetik gorako artean.** Adin- eta genero-desberdintasun horiek ikusita, nabarmentzekoa da informazio fidagarria eskuragarriago jarriko duten eta talde gutxietan praktika arduratsuak sustatuko dituzten hezkuntza ikuspegiak behar direla. Genero ikuspegia funtsezkoa da kontzientziazioan eta prebentzio- eta diagnostiko-metodoetarako sarbidean dauden desparekotasunak jorratzeko.



## Abusu eta indarkeria sexuala

**Datuek erakusten dutenez, abusu eta indarkeria sexual mota guztiak oso zabalduta daude, eta alde nabarmenak ikusten ahal dira adinaren eta, batez ere, generoaren arabera.** Adinari begiratzen badiogu, intzidentzia handiagoa da 21 eta 25 urte bitartekoen artean; izan ere, beste adin talde batzuek baino abusu edo indarkeria sexualeko egoera gehiago jakinarazi dituzte. Horren arrazoia izaten ahal da arrisku inguruneetako esposizio handiagoa dutela, gaueko aisialdiko eremuetan eta ekitaldi sozialetan gehiago egiten direlako; hain zuzen ere, adierazi dutenez, horiek izaten dira halako gertakarien agertoki nagusiak. Bestalde, 20 urtetik beherakoek intzidentzia maila nabarmen txikiagoak agertzen dituzte; hori ikusita, pentsatzen ahal da inpaktua desberdina dela bizitzaren aroaren arabera.

**Genero ikuspegitik begiratuta, emakumeak dira aztertutako abusu eta indarkeria sexual mota guztiak gehien pairatzen dituztenak.** Haiek dira nahi ez diren komentario sexualen, adostu gabeko ukituen eta indarkeriazko beste portaera batzuen biktima nagusiak. Genero desparekotasun hori bereziki agerikoa da hitzezko gehiegikerietan, eta horrek

agerian jartzen du oraindik ere jazarpenaren kultura bat dagoela eta neurritz kanpo eragiten diela emakumei. Aldiz, gizonak adierazi dutenez, askoz ere gutxiagotan pairatzen dituzte ebaluatutako egoera guztiak; horrek ez die garrantzia kentzen, baina emakumeak dira talderik zaurgarriena, argi eta garbi.

**Bestalde, azpimarratzekoa da jazarpeneko jokabide batzuk normalizatuta daudela, besteak beste, nahi gabeko piropoak edo norberaren gorputzari buruzko komentarioak, eta gazte askok pairatzen dituzte.** Hori ikusita, argi dago beharrezkoa dela hezteko eta kontzientziazteko esku hartzeak egitea, halako praktikak betikotzen dituzten dinamika kulturalak zalantzan jarri eta eraldatzeko.

**Era berean, eremu publikoetan, digitaletan eta lantokietan gertatzen diren abusuen intzidentziak argi erakusten du askotariko trespinguruetan agertzen dela arazo hori.** Bereziki, jazarpen digitalaren garrantzia nabarmendu da, eta agerian geratu dira gazteek online plataformak geroz eta gehiago erabiltzearekin lotuta dauden askotariko erronkak.

## Adostasunaren kultura

**Nafar gazteen artean onarpenaren kulturak duen tokia aztertzean, ikusi dugu kontzeptu horren inguruko ezagutza maila handia dela, eta garrantzia duela haien harreman afektibo-sexualetan.** Gazteen % 95,1ek adierazi du terminoa ezagutzen duela; beraz, esaten ahal da gizartean aurrerapen handia egin dela adostasuna lortzeko premiari buruzko sentsibilizazioan. Alabaina, badira belaunaldien arteko arrakalak eta zenbait erresistentzia- eta desinformazio-adierazle, eta aintzat hartu behar dira.

**Hala, ikusi denez, 20 urtetik beherakoek ezagutza adinez zaharra goak diren taldeena baino pixka bat txikiagoa da;** beraz, beharrezkoa izaten ahal da adostasunari eta hura harremanetan modu praktikoa aplikatzeari buruzko hezkuntza goiztiarra indartzea. Halaber, nahiz eta generoen arteko desberdintasunak txikiagoak izan, ikusten ahal da emakumeek kontzeptua sakonago eta ñabardura gehiagorekin ulertzen dutela, bereziki sexu harreman batean adostasuna edozein unetan atzera botatzeko aukeraren alderdia, besteak beste.

**Oraindik ere erronka bat da adostasun esplizitua kultura kolektiboan erabat integratzea.** Egia da gazte

gehienek onartzen dutela adostasuna esplizituki eskatzearen eta berrestearen garrantzia, baina sektore minoritario batek praktika horren inguruko zalantzak edo gaitzespena adierazten ditu, eta horrek agerian jartzen du adostasuna partzialki normalizatu dela arau sozial gisa. Beraz, garrantzitsua da harreman afektibo sexual guztietan errespetua eta elkarrekikotasuna sustatzen jarraitzea.

**Bestalde, gehienek onartzen dute "ez ezetz da" esaldiak muga argia ezartzen dutela adostasunaren eta sexu indarkeriaren artean,** baina ehuneko txiki bat ez dago ados adierazpen horrekin. Horregatik, beharrezkoa da ikuspegi inklusiboago bat garatzea, adostasunaren ulerkera esaldiaren berariazko ezetzetik harago zabaltzeko.

**Bestetik, inkestatu gehienek uste dute hezkuntzak inpaktu positiboa duela abusuen eta bortxaketen prebentzioan,** baina gazteenak eszeptikoagoak dira. Hori ikusita, esaten ahal dugu hezkuntzako estrategiek moldagarriak eta adin talde guztien pertzepzioekiko sentikorak izan behar dutela, eta arreta berezia jarri behar dela gazteek errespetuan eta berdintasunean oinarritutako kultura bat eraikitzen duten zereginen.

## Pornografia eta harreman afektibo-sexualak

**Nafarroako gazteen artean eduki pornografikoaren kontsumoa azertu ondoren, ikusi dugu zenbait kontsumo eredu esanguratsu daudela eta harreman afektibo-sexualetan zenbait ondorio dituztela.** Inkestatu-tako hamar pertsonatik seik adierazi dute noizbait ikusi dutela eduki pornografikoren bat, baina ehuneko hori nabarmen aldatzen da generoaren arabera; hala, nabarmen handiagoa da gizonen artean emakumeen artean baino. Bestalde, ikusten ahal da gazteenek halako edukiak ikusteko joera txikiagoa dutela.

**Bestalde, kezkarria da eduki pornografikoa lehen aldiz ikusteko batez besteko adinak behera egin duela, 14,4 urtera jaitsi baita, eta are txikiagoa da gizonen artean.** Belaunaldiz belaunaldi eduki horiek ikusteko adinean egondako jaitsierak agerian jartzen du beharrezkoa dela hezkuntza- eta prebentzio-neurriak hartzea, halako materialen atzipen goiztiarra eta gazteen garapen emozional eta sexualean izaten ahal dituen inpaktuak behar bezala jorratzeko.

Maiztasunari begiratzen badiogu, **hamar gaztetik lauk gutxienez hilean behin kontsumitzen dute pornografia,** eta ohitura orokortuago dago 20 urtetik beherakoen artean. Aitzitik, emakume gutxiagok adierazi dute halako edukiak maiz kontsumitzen dituztela; beraz, esaten ahal da erabilera ereduak desberdinak direla generoaren arabera.

**Bestalde, inkestatu gehienek ez dute uste pornografiaren kontsumoak inpaktu nabarmenik duenik beren bizitza emozionalean edo sexualean.** Nolanahi ere, ehuneko esanguratsu batek onartzen du halako edukiak eragina izaten ahal duela bikoteari buruzko espektatibetan, autoestimuan eta sexu harremanen barruko konfiantzan. Gainera, gehienek onartzen dute emakumeak modu iraingarrian irudikatzen direla pornografian, baina ez dago adostasun sendorik aukera etikoagoak eta ekitatiboagoak sustatzeko premiari buruz.

**Generoaren arabera ere pertzepzioak oso desberdinak dira.** Emakumeek sarriago adierazi dute pornografiak eragin kaltegarria duela harreman afektibo-sexualetan; aldiz, gizonek ondorio horiek gutxietsi ohi dituzte.

**Laburbilduz, azterlanak agerian jartzen du eduki pornografikoaren kontsumoa normalizatuta dagoela gazteen artean, eta beharrezkoa dela haren ondorioak hezkuntza- eta prebentzio-ikuspegi batetik jorratzea.** Funtsezkoa da alfabetatze mediatikoa sustatzea, gazteek ikuspegi kritikoa izan dezaten pornografiaren irudikapen ez-errealista eta desorekatuen aurrean; hala, xedea da errespetuan, berdintasunean eta adostasunean oinarritutako harreman afektibo-sexualak sustatzea.

**Gazteak eta harreman  
afektibo-sexualak  
Nafarroa 2025**